



P 5257561 C



bai & by fundazioaren ESTATUTUAK

LEHEN ATALA: ARAU OROKORRAK

1. artikulua. - Izena eta izaera

"bai & by fundazioa" izenaz sortzen da Fundazioa. Irabazi-asmorik gabea da, eta haren ondarea

erakundearen interes orokorreko helburuei atxikirik

egongo da. Fundazioa gidatuko duten arauak honako

hauek izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko


12/1994 Fundazioen Legea eta Lege hori garatzeko

arauzko xedapenak, Estatutu hauek eta Estatutu hauek

interpretatu eta garatzeko Patronatuak onartzen

dituen arauak eta dagozkion gainerako legezko xeda-

penak.



2. artikulua. - Nortasuna eta gaitasuna

Fundazioak, Erregistroan erregistratu eta gero, berariazko nortasun juridikoa eta iharduteko gaitasun osoa izango du. Hortaz, bere helburuak betetzeko behar den guztia egin ahal izango du, beti ere ordenamendu juridikoak ezarritakoaren arabera.

3. artikulua. - Eraentza


Fundazioa gobernatzeko, indarrean dauden legeak, Fundatzaileek estatutu hauetan adierazitako borondatea eta Patronatuak estatutuak interpretatu eta garatzeko ezarritako arauak eta xedapenak erabiliko dira.

Fundazioaren, beraren organo guztien eta berak gehiengo duen enpresa eta erakundeen laneko hizkuntza euskara izango da.

4. artikulua. - Helbidea



P 5257560 C



JUSTIZIA, LAN ETA
GARATE SEGURANTZA SAILA
Euzko Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Fundaciones del País Vasco

Fundazioaren helbidea honako hau izango da: Ur-
kixo zumbardia, 22 behea, 48008 Bilbao.


Patronatuak helbidea aldatu ahal izango du. Ho-
rretarako, Estatutuak aldatu egin beharko ditu, eta

Babesletzari jakinaraziko dio berehala, indarrean
dauden legeetan zehazten den moduan.

5. artikulua. - Ihardun-eremua.

Fundazioaren ihardun-eremu nagusia Euskal Auto-
nomia Erkidegoa izango da.

BIGARREN ATALA. FUNDAZIOAREN HELBURUA,
ONURADUNEN ZEHAZTAPENA ETA FUNDAZIOAREN HELBURUAK
LORTZEKO BALIABIDEAK BIDERATZEKO OINARRIZKO ARAUAK



6. artikulua. - Helburuak

Fundazioaren helburuak hurrengoak dira:

1. Euskara eta euskal kultura suspertu eta bultzatu:

Honekin lotutako iharduerak, informazio gisa eta ez muga gisa, honako hauek izango dira:

a) Euskal Herriko zazpi herrialdeetan, eta bereziki, euskara ahul dagoen lurralde eta eremuetan, euskara suspertu, bultzatu eta prestigiatzeko ekimenak bultzatzea.

b) Euskara irakasteko, tresnak eta materialak garatu eta bultzatzea.

c) Ikasleei dirulaguntzak zein bekak ematea.

d) Euskararen inguruko ikerketak suspertzea.

e) Honen inguruko kultur ekitaldi zein lehiaketak antolatzea.



P 5257559 C



f) Giza-talde bereziei zuzendutako euskararen inguruko politikak bultzatzea.

g) Euskara teknologia berrietara egokitze eta beronen erabilera bultzatzeko neurriak suspertzea.


h) Eta, oro har, aipatutakoen antzekoa edo osagarria den edo haiekin lotuta dagoen zernahi ihardu-
era.

2. Hezkuntza sistema adituak zabaldu eta hezkuntza-baliabideak sozializatu, hezkuntza eskubidea errealitate bihurtu dadin:

Honekin lotutako iharduerak, informazio gisa eta ez muga gisa, honako hauek izango dira:

a) Behar berezietako giza-taldeentzako hezkuntza

sistema egokituak zabaltzea.



b) Beste hizkuntza gutxiengodunentzako programak sortzea.

c) Haurrentzako hezkuntza software-ak garatzea.

d) Teknologiaren sarbidea diren hizkuntzen irakaskuntza laguntzea (ingelesez, ...).


e) Eta, oro har, aipatutako antzekoa edo osagarria den edo haiekin lotuta dagoen zernahi iharduerak.

3. Garapen bidean dauden herriekiko elkartasuna:

Honekin lotutako iharduerak, informazio gisa eta ez muga gisa, honako hauek izango dira:

a) Hezkuntza-produktuen garapena bultzatu horrelako herrietan, hizkuntza irakaskuntza barne.

b) Bertako enpresak edo software-proiektuak bul-



tzatu.




c) Diru-laguntzak eman edo garapen bidean dauden herrietan beharrik premiazkoenak asebetetzeko proiektuak bultzatu.

d) Eta, oro har, aipatutakoen antzekoa edo osagarria den edo haiekin lotuta dagoen zernahi ihardu-
era.

7. artikulua. - Onuradunak zehaztea

Fundazioak objektibitatea eta inpartzialtasuna izango ditu gidari onuradunak hautatzeko eta ezin izango du inolako diskriminazio negatiborik ezarri. Horretarako, bere helburu eta iharduerari behar beste publizitate emango die, onuradun edo interesatu izan daitezkeenek ezagutu ditzaten. Publiko orokorrari zuzendutako beka, sari edo antzeko ihardueren oina-




rrietan argi eta garbi zehaztuko dira onuradunak hautatzeko irizpideak.

Patronatuak iharduera konkretu bakoitzarako onuradunak hautatzeko irizpideak ezarriko ditu, beren ezaugarrien eta Fundazioaren interes orokorreko helburuen arabera. Aipatutako irizpideak ezartzeko ondoko printzipioak aintzat hartuko dira:

Euskara eta euskal kulturaren sustapenera zuzenduriko ihardueretan, lehentasuna emango zaie sustapen horretan nabarmendu diren pertsona eta kolektiboek, bereziki borondatezko eta irabazi-asmorik gabeko ihardueren bidez. Euskalduntze prozesuan dagokien Euskal Herriko zazpi lurraldeen herri administrazioetako departamendu eskudunek lehentasunezkoak deklaratu dituzten kolektiboek ere lehentasuna izan dezakete.

Hezkuntza, baliabideen zabalpen eta sozializazioa zuzenduriko neurrietan premia bereziko kolektibo edo talde sozialei (adibidez: urritu fisiko edo psikikoak, gaixoen senide elkarteak etab.), hezkuntzara heltzea zail duten kolektiboek (adibidez: presoak, etorkinak, etab.) eta erregio edo gutxien-godunen hizkuntzatan diharduten kolektiboek lehenta-



P 5257557 C



suna emango zaie.

Garapen bidean dauden herriekiko elkartasunera zuzenduriko neurrietan baliabide gutxiko eremuetako kolektibo edo talde sozialei, bereziki irabazi-asmorik gabeko eta Fundazioaren helburu analogoak edo bestelako helburu sozialak dituztenei, lehentasuna emango zaie.

Beka eta laguntza ekonomikoak ematerakoan, banakako eskatzaileen ekonomi baliabide falta aintzat hartuto da, eta eskatzaile kolektiboen kasuan helburu sozial duten edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek lehentasuna emango zaie.

Onuradunen aurretiazko hautaketetan, Patronatuak Fundazioaren helburuak eta azaldutako printzipioak betetzen direla bermatzen duten beste erakundeen laguntza eskatu ahal izango du.

8. artikulua. - Errenten eta diru-sarreraren era-



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco


bilera

8.1. Patronatuak, Fundazioaren baliabideak erabiltzeko orduan, indarrean dagoen legeriak xedatzen duena beteko du: Fundazioak edozein bidez, zergak kendu, ostean, lortzen dituen diru-sarrerak garbien ehuneko hirurogeita hamarra, gutxienez, Fundazioaren helburuak gauzatzera bideratu beharko da, baldin eta eratzeko unean edo, geroago ondarezko diru-izendapen gisa egindako ekarpenak ez badira. Gainerako diru-sarrerak, administrazio-gastuak kendu ondoren, egokien xedera bideratuko dira aplikagarri diren araudiaren arabera.

Aurreko paragrafoan aipatzen den errenten eta diru-sarriren, proportzioa bideratzeko, lortzen dituen unetik gehienez hiru urteko epea izango du Fundazioak.

8.2. Fundazioak bere baliabideak 6. artikuluan aipatutako xedeetara bideratuko ditu, xede bakoitzari hurrengo gutxienezko proportzioetan:

Euskara eta euskal kultura suspertu eta bultzatu: Fundazioaren sarrerak garbien %15a.



P 5257556 C




Hezkuntza sistema adituen zabalketa eta hezkuntza baliabideak sozializatzea, hezkuntza eskubidea errealitate bihur dadin: Fundazioaren sarrera garbien %10a.

Garapen bideko herriekiko elkartasuna: Fundazioaren sarrera garbien %10a.

Kopuru hauek kalkulatzeko Fundazioaren diru sarrerera garbiak hartuko dira kontuan, ondarezko diruizendapen gisa egindako ekarpenak ez badira.

Fundazioaren proiektu batek xedeetako bat baino gehiagori erantzuten badio, Patronatuak proiektu honen kopurua helburuen artean esleituko du egoki deritzon proportzioan.

Xede baterako urte batean behar baino gutxiago gastatzen bada, defizit hori hurrengo bi urteetan bete beharko da. Aldiz, urte batean gutxienekoa baino gehiago gastatzen bada, aurreko urteetako



defizita balego, defizit hori betetzeko erabiliko da superabita. Aurreko urteetako defizitik ez balego edota defizit hori bete ostean, superabita geratzen bada, geratzen den superabita kontuan hartu ahal izango da hurrengo bi urteetako defizitak betetzeko. Inoiz ez dira gastuak behin baino gehiagotan kontuan hartuko.

8.3. Fundazioaren helburuak betetzearren, Patro-natuak artikuluko honek ezartzen dituen mugen barruan une bakoitzean egokienak edo komenigarrienak irudi-tzen zaizkion iharduerak zehaztuko ditu.

9. artikulua. - Iharduteko askatasuna

Fundazioak honakoak egin ahal izango ditu:

a) Era guztietako iharduera ekonomikoak garatu, bere helburuak lortzearren.

b) Era guztietako ondasunak eta eskubideak edo-zein tituluz eskuratu eta eskualdatu, eta era guzti-



P. 5257555 C



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

etako eginbideak, negozioak eta kontratuak egin.

c) Bere helburuak betetzeko, enpresa, elkarte
edo edozein motatako erakundetan parte hartu; Euskal
Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 12/1994


Legearen 25. artikulua ezarritakoaren arabera.

d) Era guztietako egintzak, indarrean dagoen le-
geria eta bere estatutuen arabera.

Aipaturiko iharduera guztiak Estatutu hauen
Euskal autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko
12/1994 Legearen eta indarrean dagoen beste legeria-
ren arabera egingo dira.

HIRUGARREN ATALA. FUNDAZIOAREN GOBERNUA.

10. artikulua. - Izaera



Patronatua Fundazioaren gobernu-organoa, ordezkaria eta administratzailea izango da. Ordenamendu juridikoan eta Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera beteko ditu bere eginkizunak Patronatuak.

11. artikulua. - Patronatuaren osaketa

Patronatua kide anitzeko organoa izango da, gutxienez bost kidez eta gehienez hamaika kidez osatua.

Pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke patrono, indarrean dagoen legeriak ezarritako mugak kontuan hartuz. Patrono izateko euskaraz jakin beharko da, edo, patrono pertsona juridikoa bada, ordezkari izendatutako pertsona fisikoak euskaraz jakin beharko du.

Hasieran Patronatua sortzaileek izendatutako kideez osatuta egongo da. Sortze-ekitaldiaren ondoren, Patronatuko kide-kopurua zehaztea -estatutu hauen mugen barruan- eta kideak izendatzea -hutsuneak



P 5257554 C



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Enregistratza
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del Pais Vasco


betetzeko edota kideak berritzeko-, Patronatuari berari dagokio 22. artikulua 4. zenbakiak ezartzen duen gehiengoaren bidez.

Patronatuak bere kide kopurua aldatu ahal izango du edozein momentutan aipatutako mugen barnean. Kide kopurua gehitzeko kasuan, Patronatuak kide berriak izendatuko ditu.

12. artikulua. - Agintaldiaren iraupena

Patronoen agintaldia bost urtekoa izango da. Patronatua berritu behar denean, Patronatuak patrono berriak izendatuko ditu kargugabetu behar diren patronoen agintaldia amaitu baino lehen.

Patronatuak edozein momentutan patrono bat edo gehiagoren kargugabetzea eta kide berrien izendapena erabaki dezake.



Patronatuko kideak nahi beste aldiz berrautatu ahal izango dira.


13. artikulua. - Patrono-kargua onartzea

Patronatoko kideak kargua beren-beregi onartu ondoren hasiko dira karguari dagozkion eginkizunak betetzen.

Aipatuko onarpena Eskritura Publiko baten bidez, Notario batek izenpenak egiaztatutako dokumentu pribatu baten bidez edo Fundazioen Erregistroan horretarako agertuz inskribatuko da Fundazioen Erregistroan.

14. artikulua. - Patrono-kargua uztea

Fundazioaren Patronatuko kideen kargu-uztea honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotzagatik edo hildakotzat deklaraturik izateagatik eta halaber pertsona juridikoa iraungitzen delako; uko egiteaga-



P 5257553 C




JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTI SEGURANTZA SAILA
Euzko Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

tik, behar den bezala jakinaraziz gero; ezgaitasuna-
gatik, desgaitasunagatik edo bateraezintasunagatik,
legeak ezarritakoaren arabera; ebazpen judizialaga-
tik; 25. artikuluan ezarritako arrazoiengatik;
Patronatuaren akordioetatik 12. artikuluan arabera
eta legean ezarritako beste edozein arrazoiengatik.

Karguari uko egitea Patronatoari bide fede-
maile baten bidez jakinarazten zaion unean gauza-
tuko da.

Patrono-kargua hutsik gelditzen denean, eta, ho-
nen ondorioz, Patrono kideen kopurua gutxienez
baino txikiagoa bada, Patronatuak patrono berria 22.
artikuluak ezarritako gehiengoaz izendatuko du, eta
beronen agintaldiaren iraupena ordezkatzeko duen
patronoari geratzen zitzaiona izango da.

15. artikulua. - Patronatuaren antolaketa



Patronatuak Patronatuko kideen artean Presidente bat eta Presidenteorde bat izendatuko ditu. Idazkari bat eta idazkariorde bat ere izendatuko ditu, baina hauek ez dute nahitaez Patronatuko kideak izan behar.

16. artikulua. - Presidentea


Presidentea Fundazioaren ordezkaria izango da era guztietako pertsona, agintari eta erakunde publiko eta pribatuaren aurrean; Patronatuaren bilera-deiak egingo ditu, bilera horietan buru izango da, eztabaidak zuzentzen, eta, hala dagokionean, Patronatuaren erabakiak gauzatu egingo ditu. Horretarako, era guztietako egintzak egin eta behar diren dokumentuak sinatu ahal izango ditu.

17. artikulua. - Presidenteordea

Presidenteordeak Presidentearen egitekoak beteko ditu Presidentea falta denean, eta Fundazioaren




P 5257552 C



izenean ihardun ahal izango du Patronatuak hala erabakitzen duenean. Presidenteordea ere falta denean, patrono-karguan denbora gehien daraman kideak edo, antzinasun bera dutenean, patronorik zaharrenak ordezkatzeko du Presidenteordea.

18. artikulua. - Idazkaria

Idazkariaren egitekoak dira Fundazioaren agiri guztiak zaintzea, Patronatuaren bileren aktak egitea, behar diren egiaztagiriak eta txostenak egitea eta espresuki ematen zaizkion bestelako egitekoak. Idazkaria falta denean, idazkariordeak beteko ditu funtzio hauek. Idazkariordea ere falta denean, Patronatuko kiderik berrienak edo, antzinasun berdina dutenean, kiderik gazteenak ihardungo du Idazkariaren ordezkariak.



19. artikulua.- Fundazioaren Zuzendaria


Patronatuak Fundazioaren Zuzendari bat aukeratu ahal izango du Patronatuak hartutako erabakiak betearazi eta Fundazioaren kudeaketarako behar diren neurri guztiak hartzeko.

Zuzendaria Patronatuak berak aukeratuko du, Patronoen edota kanpoko pertsonen artean, 22. artikuluan ezarritako gehiengoaren arabera. Zuzendaria patronatuko kidea ez balitz, Patronatuko bileretan hartuko du parte patronoek kontrakoa erabaki ezean. Hitza izango du, baina botorik ez.

20. artikulua. - Patronatuaren eskumenak

20.1. Fundazioaren ordezkaritza, administrazioa eta gobernua Patronatuari dagokio. Patronatuaren eskumenen mugak legeek ezarritakoak baino ez dira izango.

Fundazioaren helburuak betetzeko behar diren eskumen eta ahalmen guztien jabe bakarra Patronatua



P 5257551 C




da. Berari dagokio Estatutu hauek inolako mugarik gabe interpretatzea.

20.2. Patronatuaren eskumenak, informazio gisa eta ez muga gisa, honako hauek dira:

a) Fundazioa era guztietako agintari eta erakundeen aurrean ordezkatzeari, estatu-mailakoak, autonomia-erkidego mailakoak edo diren mailakoak direla, eta, oro har, Fundazioa hirugarren pertsonen aurrean ordezkatzeari.

b) Eskubideak, zorrak edo betebeharrak eskuratzeari Fundazioarentzat, edo Fundazioaren izenean ematea, eta haiek ordaintzeko edo betetzeko epeak eta baldintzak ezartzeari; kontuak eskatzeari eta ematea; eta dirua maileguan edo kreditu gisa hartzea, behar diren bermeak -higigarriak zein higiezinak- eman ondoren, hipoteka eratzea barne.




c) Fundazioaren izenean eta/edo pertsona fisiko edo juridikoen partetik abalak, fidantzak edo bermeak ematea eta hartzea, bai eta erakunde publikoen aurrean ere.

d) Mota guztietako ondasun higigarriak eta higiezinak saltzea, erostea, ordainean ematea edo jasotzea, uztea, trukatzeta eta beste nolanahi eskuratzea eta besterentzea, eta horretarako interesgarritzat jotzen dituen prezioak, baldintzak, epeak eta ordaintzeko erak erabakitzea.

e) Ageriko kontuak edo kreditu-kontuak ireki, itxi eta dagoeneko irekita daudenen saldoak erabiltzea; gordailuak esku-dirutan eta efektutan eratzea, kitatzea eta endosatzea edozein bankutan, baita Espainiako Bankuan edo beste edozein kreditu-erakunde edo erakunde komertzialetan ere, interesa-ekin edo interesik gabe, berme pertsonalekin, berme errealekin edo bermerik gabe; aipatu kontuen eta gordailuen fondoen zati bat edo osorik erabiltzea eta horretarako frogagiriak edo txekeak sinatzea; likidazioak egitea, bermeak kentzea eta ateratzea, eta saldoekiko adostasuna ematea edo ukatzea.



P 5257550 C



f) Fundazioari zor zaiona eskatzea, eskuratzea eta kobratzea, zorraren jatorria eta izaera edozein dela ere, eta zorduna edonor dela ere, baita Ogasunaren Ordezkaritza edo Estatuaren edozein Administrazio edo Erakunde Publiko edo, Autonomia Erkidegoetako Erakundeak badira, edo sozietateak, enpresak edo pertsona fisikoak izanik ere; eta horretarako frogagiriak, ordainketa-aginduak, txekueak, ordainketa-gutunak eta kitatze-agiriak eta behar diren gainerako agiriak sinatzea.

g) Ordainketa-etenduretan, porrotetan, kita eta itxaroteko prozeduretan eta hartzekodunen konkurtsoetan parte hartzea; zordunekin eta hartzekodunekin hitzarmen judizialak eta ez-judizialak egitea eta gauzatu eta bete daitezen eskatzea; hartzekodunen biltzarretara joatea eta botoa ematea.

h) Ganbio-letrak, txekueak, ordaindukoak, poli-



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
ERIZARTE SEGURANTZA SAILA
uskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco


erogagiriak eta gainerako merkataritza-efektuak
igortzea, onartzea, endosatzea, abalatzea eta nego-
ziaztea; haien zenbatekoa ordaintzea eta kobratzea;
onartzen edo ordaintzen ez direlako protestatzea,
eta onartzeari uko egitea.

i) Gutunak eta telegrafo bidezko, telefono bi-
dezko eta beste edonolako mezuak jasotzea, irakitzeta
eta erantzutea, baita posta bidezko gutun ziurta-
tuak, balore-orri, deklaratuak eta mota guztietako
posta-bidalketak eta igorpenak ere. Halaber, edonon
Fundazioaren izenean dagoen guztia jasotzea, eta
behar diren erreklamazioak egitea.


j) Prima finkoko sozietateekin eta mutualitatee-
kin edozein motatako aseguru-kontratuak egitea; bide
judizialek nahiz ez judizialek erreklamazioak
egitea eta behar den diru-kopurua kobratzea epemuga
iritsiz gero edo ezbeharren bat gertatuz gero;
polizen baldintza orokor eta partikularrak bete
daitezen eta gauzatu daitezen eskatzeko eskubide
guztiak erabiltzea, eta, batez ere, kalteen perita-
tzean parte hartzea, perituak izendatzea eta kentzea
eta eskumena duen Epaitegiari hirugarren peritua



P 5257549 C




izenda dezan eskatzea.



k) Bazkideen erantzukizuna mugatuta duten sozietateak —ekonomia sozialeko sozietateak barne— eratzea, akzioak eta partaidetza sozialak harpidetzea, ordainketak esku-dirutan edo gauzaz egitea, estatuak hitzartzea eta kudeatzeko edo administratzeko karguak eta ordezkaritza sozialeko karguak izendatzea edo onartzea.

l) Lehiaketetan eta emateko edo hartzeko enkanteetan —publikoak zein pribatuak— parte hartzea eta transakzioak, arbitro-klausulak eta zuzenbideko edo zuzentasuneko arbitrajeak hitzartzea, arbitroak izendatzea eta haien laudoak onartzea edo aurka egitea.

m) Enplegatuak eta langileak kontratatzea eta kaleratzea, soldatak eta era guztietako ordainsariak ezartzea, eta kalte-ordainak hitzartu eta ordain-





tzea.

n) Epaitegi eta Auzitegietan, jurisdikzioa edozein dela ere, agertzea: bai adiskidetze-egintzetan adostasunarekin nahiz adostasunik gabe, bai epaiketa zibiletan eta bai kausa kriminaletan, eta horietan guztietan kereilak sinatu ahal izatea eta prozeduraren eskaintza jaso ahal izatea; posizioak absolbitzea eta epaiketetan aitortzea; epaiketa zibiletan agertzea, Auzibide Sozialeko Epaitegietan eta haien epaien aurkako helegiteetan; espediente administratiboak sustatzea edozein jurisdikzioren aurrean; administrazioarekiko erreklamazio ekonomikoak eta administrazioarekiko auziak sustatzea, eta era guztietako espediente, epaiketa, prozesu eta kausetan erreserbarik eta mugarik gabe parte hartu ahal izatea edozein administrazioren aurrean, jurisdikzioa edozein dela ere.

o) Eta behar diren dokumentu publiko eta pribatu guztiak ematea eta sinatzea, baita konpontzekoak, zuzentzekoak eta behar diren gainerako dokumentu osagarriak ere.



P 5257548 C



20.3. Patronatuak, indarrean dauden legeak

bera delegaezinak diren gaitan izan ezik, patrono kideei, Fundazioaren Zuzendariari, Fundazioaren langileei edo beste edozein pertsonari ahalordeak eman ahal izango dizkie.


Ondasun higiezinak eskuratzea edo eskualdatzea eta ondasun higiezinaren gaineko berme errealak eratzeari delegaezinak izango dira. Eragiketa hauek Patronatuaren aurretiazko akordioa eskatuko dute.

Hurrengo kasuetarako ahalordea gutxienenez bi pertsonen artean mankomunatu izan beharko da:

60.000 euro baino gehiagoko ondasunen eskuratzea eta eskualdaketa.

Fidantzak, abalak edo edozein motatako bermeak, errealak izan ezik.

60.000 euro baino gehiagoko ordainketa eta ordainketa konpromisoak.



21. artikulua. - Patronatuaren bilerak eta bilera-deiak


Patronatuak gutxienez urtean bi bilera egingo ditu, bata urteko lehendabiziko sei hilekoan eta bestea azkeneko hiruhilekoan. Horrez gainera, Fundazioa bide onetik joan dadin behar den beste aldiz bilduko da. Presidenteari dagokio Patronatuaren bilera-deiak egitea. Berak erabakitzen duenean edo Patronatuko 2 kidek eskatzen dutenean egingo du bilera-deia.

Bilera-eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago helaraziko zaio kide bakoitzari deialdia, kide bakoitzak deialdia jaso duela frogatzeko modua ematen duen bide batez. Deialdian, bileraren tokia, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai-zerrenda ere. Deialdiarekin batera eta hala dagokionean, beharrezko dokumentazioa ere bidaliko zaie Patronatuko kideei.

Patronatuko kide guztiak bertan daudela aho batez bilera egitea erabakitzen dutenean ez da behar



P 5257547 C




irrezkoa izango bilera-deia aldez aurretik bidaltzea.

22. artikulua. - Eztabaidatzeko eta erabakitzeko era

22.1. Patronatuko bileretan patronoak beraien kabuz edo Patronatuko beste kide batek ordezkaturak agertu ahal izango dira.

22.2. Lehen deialdian gutxienez kideen erdia biltzen bada, eta bigarren deialdian patronoen erdia ken bat edo gehiago biltzen badira osatutzat joko da Patronatuaren bilera. Bigarren deialdian ere quorumik ez badago, Presidenteak beste bilera bat deituko du, bi bileren arteko epea gutxienez hamabost egunekoak izanik.

22.3. Orokorrean, erabakiak kontsentsuz hartzen ahal eginduko da. Hala posible ez den kasuetan,



erabakiak hartzeko, bileran agertutako patronoen botoen gehiengo soilak behar izango da, Estatutuek edo Legeak gehiengo berezia eskatzen dutenean izan ezik.

Berdinketa kasuetan, hurrengo bilerara eramango da gaia. Bertan berdinketak iraungo balu, denbora gehien daramaten patronatu kideek boto bikoitza edukiko dute. Hala ere berdinketak jarraituko balu, denbora gehien daramaten patronoetatik zaharrenak erabakiko du, patronatu kidea pertsona juridikoa den kasuetan ordezkari pertsona fisikoaren adina kontuan hartuko da.

22.4. Hurrengo erabakiak hartzeko gutxienez patronatua osatzen duten kide guztien %70en aldeko botoa beharko da:

1. Patrono berrien izendapena.
2. Patrono-kopuruaren aldaketa.
3. Patronoen kargugabetzea.
4. Patronatuko Presidentearen aukeraketa.
5. Estatutuen aldarazpena.
6. Fundazioak parte harturiko sozietateen administrazio organoetarako kideen izendapena.



P 5257546 C



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

7. Fundazioaren Zuzendariaren izendapena

22.5. Patronatuaren bileren aktak Patronatuak

berak onartuko ditu. Behar direnean, Idazkariak edota bere kasuan bere ordezkioak akta-ziurtagiriak egingo ditu. Presidentearen edota bere kasuan bere ordezkioaren oniritziarekin.

23. artikulua. - Patronatuaren betebeharrak

Patronatuak, bere jardunean, indarrean dauden legeak, beteko ditu, eta fundatzaileek Estatutuen bidez ezarritako borondatearen arabera jokatu behar harko du.

Patronatuak Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratuko ditu horien emankortasunari bete-betean eutsiz, kudeatzaile on baten ekonomia-irizpideen arabera.


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO
JUSTIZIA, LAN ENPLEA
GIZARTE SEGURANTIA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Batzarra
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones

Patronatuak Fundazioaren helburuen eta ihardue-
ren behar beste informazio emango du, balizko onura-
dunek eta gainerako interesatuek haien berri izan
dezaten.



**24. artikulua. - Patronatuko kideen betebeharrak
eta erantzukizuna**

Besteak beste, Patronatuko kideen betebeharrak
dira Fundazioaren helburuak betearaztea; bilerak deia
jasotzen dutenean, bilerara joatea; kargua ordezkar-
leial gisa arduraz betetzea; Fundazioaren ondasunak
ongi zaintzea eta emankorrak izan daitezen ardura-
tzea; eta beren ihardunean indarrean dauden legeak
eta Estatutu hauek xedatzen dutena betetzea.

Legearen edo Estatutuen aurka iharduteagatik edo
"arduragabekeriak" jokatzegatik eragindako kalteen
erantzule izango dira Patronatuko kideak Fundazioa-
ren aurrean. Erabaki kaltegarri horien aurka espre-
suki agertu zirenak edo erabakietan parte hartu ez
zutenak salbuetsi egingo dira erantzukizunetik.



P. 5257545 C



25. artikulua. - Patronatuko kideak kargugabe-

tzea

Patronatuak edozein kide kargutik kentzea era-

baki dezake, interesatua entzun eta gero baldin eta

Patronatuko kide horrek 12/1994 Legearen 13. artiku-

luan zehazten diren betebeharrak betetzen ez baditu,

Fundazioaren eginkizunetan edo Patronatuaren lanetan

laguntzen ez badu, edo Patronatuak agindutako lanak

egiteko orduan arduragabe jokatzekoa bada.


Patronoak kargugabetzeko aurreko faltak larriak

izan behar dira. Besteak beste, justifikaziorik gabe

Patronatoaren bi bileratara jarraian ez agertzea

falta larritzat joko da.

26. artikulua. - Patrono-karguaren doako izaera



Patronatuko kideek doan beteko dute kargua, eta egiteko horregatik ezin izango dute inoiz ordainsaririk jaso.

Patronatuko kideek eskubidea izango dute beren egitekoa betetzeak sortzen dizkien gastuen ordaina jasotzeko, gastu horiek behar bezala frogatuz gero.


27. artikulua. - Zuzendaritza-batzordea

Patronatuak bere kideen artean Zuzendaritza-batzorde bat hautatu ahal izango du. Patronatuak erabakiko du kargu horiek betetzeko zenbat pertsona behar diren eta nola ihardungo duten, eta haien esku utzi ahal izango ditu, osorik edo partez, aldi baterako edo mugarik gabe, eskumen guztiak, Legearen edo Estatutu hauen arabera inoren esku ezin utzi daitezkeenak izan ezik.

Patronatuak edozein momentutan Zuzendaritza-batzordeari eskuordeturiko funtzioak berreskuratu ahaliko ditu edo bere kabuz egikaritu ahal izango



P 5257544 C



ditu.

LAUGARREN ATALA. FUNDAZIOAREN ONDAREA

28. artikulua. - Fundazioaren ondarea

Balio ekonomikoa izan dezaketen era guztietako ondasunak eta eskubideak izan daitezke Fundazioaren ondarea.

29. artikulua. - Fundazioaren hornidura

Fundazioaren hasierako hornidura osatzen duten ondasun eta eskubideek eta aurrerantzean horretarako ematen zaizkion gainerakoek osatuko dute Fundazioaren hornidura.

Batzuek zein besteek Fundazioaren izenean agertu



behar dute, eta haren inbentarioan eta, beharrezkoa denean, Fundazioen Erregistroan ere inskribaturik egon behar dute.

30. artikulua. - Iharduerak

Fundazioak, lizaera osagarritz, merkataritza-zein industria-jarduerak honela egin ahal izango ditu:

a) Bere kabuz, Fundazioaren helburuekin bat datorzenezan edo haien zerbitzura daudenean.


b) Kideen erantzukizuna mugaturik duten sozietateetan parte hartuz.

31. artikulua. - Finantzaketa

Ihardun ahal izateko, Fundazioak bere ondarearen etekinetatik ateratako baliabideak erabiliko ditu, eta beste pertsona edo erakunde batzuek, publiko nahiz pribatuek, emandako dirulaguntza edo dohain-



P 5257543 C



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euzko Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

tzak ere erabili ahal izango ditu.

Fundazioak onuradunei ematen dizkien zerbitzuak

ordaintzekoak izan daitezke baldin eta horrek Funda-

zioaren balizko onuradunen gehiegizko muga ezartzen

ez badio:

32. artikulua. Administrazioa

Patronatuak Fundazioaren izenean ondoko egintze-

takoren bat egiten badu, Babesletzari jakinarazi

beharko dio:

Ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideen


gaineko erabiltze-egintzak edo zergapetze-egintzak

Helburuak zuzen-zuzenean betetzeko behar diren

ondasun edo eskubideen erabiltze-egintzak edo zerga-

petze-egintzak.

Fundazioak azken urtean izan duen balantzearen



aktiboaren ehuneko hogeia baino gehiagoko balioa duten ondasun edo eskubideen gaineko erabiltze-egintzak edo zergapetze-egintzak.

Aurreko idazatietan aipatzen diren ondasunak eta eskubideak arbitraian edo eskualdaketan jartzea.

33. artikulua. - Finantza-erantzua


Ekitaldi ekonomikoa bat etorriko da urte naturalarekin. Salbuespen gisa, lehendabiziko ekitaldia Eraketa Eskrituraren egun berean hasiko da eta hurrengo abenduaren 31n bukatuko da.

Indarrean dauden legeek zehazten dituzten liburuak izango ditu Fundazioak. Horiez gainera, bere iharduna behar den ordenaz eta era egokian egin ahal izateko behar diren liburuak ere izango ditu, baita kontabilitatearen kontrol egokirako behar direnak ere.

Ekonomia- eta finantza-kudeaketari dagokionez, Fundazioak indarrean dauden legeetan ezartzen diren oinarri eta irizpide orokorren arabera jokatu du.



P 5257542 C




DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

34. artikulua. - Kontu-ematea eta Aurrekontuak
egitea

Urteko lehendabiziko sei hilekoan egin beharreko bileran, Patronatuak urteko kontuak, inbentarioa eta aurreko ekitaldiko sarreraren eta gastuen aurrekontuaren kitapena onartuko ditu. Dokumentu horiek Babesletzari aurkeztuko zaizkio urteko lehendabiziko sei hilekoan gordailatu ditzan. Era berean, Fundazioak, baldin legeek ezartzen dituzten kasuen barnean badago, aurreko agirien kanpoko ikuskapena egin beharko du.

Urteko azkeneko hiruhilekoan egin beharreko batzarrean, Patronatuak hurrengo ekitaldirako aurrekontua ere onartuko du. Aurrekontuan sarrera eta gastuen aurreikuspenak argi eta garbi azalduko dira, eta argibide-memoria ere izango du. Aipatu dokumen-



tuak epe berberean Babesletzari aurkeztuko zaizkio.


BOSGARREN ATALA.- LAGUNTZAILEAK

35. artikulua. - Laguntzaileen Batza

Fundazioaren laguntzaile izango dira, hala nahi izanez gero, Fundazioak parte hartzen duen sozietate guztietako langileak, baldin eta zuzenean edo zeharka Fundazioak parte harturiko sozietateetan gutxienez kapitalaren %51a ordezkatzeko duen akzioen/partaidetzen jabe bada.

Fundazioaren laguntzaileek hurrengo eskubideak izango dituzte:

- Patronatuko kide izateko aukera.
- Fundazioaren egoera eta iharduerei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Patronatuari Fundazioaren jarduerari buruzko proposamenak helarazteko eskubidea.
- Patrono berrien izendapena proposatzeko auke-



P 5257541 C



ra.

- Langileengan egunerokotasunak sortzen dituen arazoez Patronatua informatzeko aukera.

Batzak, laguntzaileen artetik Patronatu kide izateko pertsona bat Patronatuari proposatu ahal izango dio, eta agintaldiaren ostean patrono hori ordezkatzeko hautagaia. Laguntzaileen arteko Patronatu kiderik ez balego izendapen berri bakoitzean pertsona bat Patronatuari proposatzeko aukera izango du.

Patronatuak Laguntzaileen Batzaren barne funtzionamendu demokratikoa ezarri eta errespetatzen duen barne-araudi bat adostuko du.

Laguntzaileen Batza gutxienez urtean behin bilduko da, Patronatuak urteko lehenengo seihilekoan egin beharreko batzarra eta gero. Deialdiak Patronatuak egingo ditu, bai bere kabuz, bai laguntzaileen



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

bosten batek eskatuta.

Deialdia jakinarazpen orokor bitartez egingo da, enpresa bakoitzaren egoitzaren iragarki-tauletan deialdia argitaratuz, batzarrerako eguna baino hamar egun lehenago gutxienez. Deialdian honako hauek zehaztuko dira: lekua, aretoa, data, ordua eta gaitzerrenda.

Laguntzaileen Batzak legez osatuta geratuko da bertaratutakoen kopurua edozein izanik ere, eta buru izango da bertaratuek hautatzen dutena. Patronatuko idazkaria izango da Batzarraren idazkaria eta, bera ez balego, bertaratuek erabakitzen dutena. Erabakiak gehiengoz hartuko dira.

Fundazioaren barneko funtzionamendua solidario eta partehartzailea izango da, proiektu osoan sartutako pertsonen eta langileen parte hartzea ahalbideratuko du. Bertan lan egiten duten guztien lanbaldintza duinak bermatuko ditu, baita bere enpresa eta proiektuetan.



P 5257540 C



SEIGARREN ATALA. - ALDAKETA
ETA IRAUNGIPENA


36. artikulua. - Estatutuen aldaketa

Patronatuak Estatutu hauek aldatu behar izango dituzte Fundazioaren interesetarako, komenigarria den neurrian Fundazioa sortu zenean zegoen egoera aldatzen bada, eta aldaketa horren ondorioz, Estatutuek

Fundazioaren ihardun egokia oztopatzen badute, Estatutuak aldatu egingo dira.

Estatutuak aldatu behar izateko, 22. artikuluan aipatutako gehiengo berezia beharko da.

Aldaketa-erabakiak arrazoitua izan behar du, eskritura publiko bidez gauzatu beharko da, Babesle-tzak onartu behar du eta Fundazioen Erregistroan inskribatu behar da.



37. artikulua.- Beste fundazio batekin bat egitea

Patronatuak Fundazioa beste batekin batzeko proposatu ahal izango dio Babesletzari. Horretarako, aldez aurretik beste Fundazio horrekin bat egiteko akordioa hitzarturik izan beharko du.

Bat egiteko erabakia hartzeko, Estatutu hauen 22. artikuluan zehaztutako gehiengoa beharko da.

38. artikulua.- Fundazioaren iraungipena, hartzekoaren kitapena eta esleipena

Indarrean dagoen legedian ezartzen diren kausa eta prozeduraren arabera iraungiko da Fundazioa.

Fundazioa desegin ondoren ondasun eta eskubiderik geldituko balira, Patronatuak erabakitzen dituen interes orokorreko xedeetara bideratuko dira, lehentasunez, iraungitakoaren xede analogoak dituzten



P 5257539 C

Fundazio edo Erakundeetara.



Handwritten signature: Etxepare

Handwritten signature: G. N. y